

2026 BAGARE

IK
Izaskun Arrue
Kulturguneo

OINARRIAK

XEDEA

BAGARE Arabako kultur arloko estrategia euskaltzaleak sustatzeko ikerketa beka bat da. Deialdi honen bidez, euskararen normalizazioan eta biziberritzean eragina izango duten ikerketak sustatu nahi dira, **Arabako estrategia kultural euskaltzaleak** garatzen laguntzeko.

Ikerketaren ondorio gisa, etorkizun hurbilean euskal kulturak Araban izan ditzakeen **sustapen-estrategiak, aplikazio-metodologiak, programazio-proposamenak edo begirada berritzaileak** iradoki beharko dira.

IZAERA

Arabako euskararen biziberritzearen egoera eta haren berezitasunak abiapuntu hartuta, BAGAREK **euskararen eta euskal kulturaren arloetan ikerketa** sustatu nahi du.

Deialdian **etorkizunera begirako ikerketa, proposamen eta estrategiak** lehenetsiko dira. Horretarako, Izaskun Arrue Kulturgunearen eta Lazarraga Kultur Elkartearen helburuekin bat etorruta, **Arabako euskalgintzako eta kulturgintzako eragileek jarduna eta parte-hartzea** kontuan hartu beharko dira.

HARTZAILEAK

Euskal Herrian bizi, lan egin edo ikasten duten eta kulturaren arloan ikerketa bat garatu nahi duten pertsonak bilatuko dira.

ORDAINSARIA ETA IRAUNALDIA

Ikertzaileak **4.000 € (*)** jasoko ditu eta **sei hilabete** izango ditu ikerketa burutzeko. Epea **hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera** hasiko da zenbatzen.

NORENTZAT

- Adinez nagusia den edozein pertsonak aurkeztu ahal izango du proiektua.
- Eskatzaileak **pertsona fisikoak, banaka edo taldeka, irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo enpresak** izan daitezke.
- Taldean aurkeztuz gero, kideek euren arteko bat izendatu beharko dute **koordinatzaile eta ordezkari** gisa.
- Euskal filologian, kulturean, soziolinguistikan, kazetaritzan, antropologian edo bestelako gizarte-zientzietan izandako **esperientzia eta ibilbidea** baloratuko dira.
- Gutxienez euskararen C1 maila egiaztatzen duen titulua edo baliokidea izan beharko da: HABEren C1, EGA, IVAPen 3. HE edo HEOREn C1.
- Ez da ikertzaile- edo doktorego-titulurik eskatuko; bai, ordea, **estrategia kulturalak ikuspegi teorikotik lantzeko motibazioa eta konpromisoa**.
- Proiektuaren garapena, aurkezpena eta Izaskun Arrue Kulturguneko langileekiko harremana **euskaraz** izango dira.
- **Deialdi honetako dirulaguntza beste laguntza batzuekin uztargarria izango da.** Hala ere, aurkeztutako ikerketak **originala eta bereizgarria** izan beharko du, eta ezin izango da aurrez beste ikerketa batean garatutako eduki bera erabili. Beste ikerketa batzuekin oinarri edo ikerketa-ildo komunak partekatu ahal izango baditu ere, proiektuak **bere ekarpen propioa** egin beharko die deialdi honetako helburuei.

2026 BAGARE

IK
Izaskun Arrue
Kulturguneo

KONTUAN HARTUKO DIRA

- Euskarazko kultur sorkuntza sustatzeko estrategiak.
- Euskararen erabilera bultzatzeko eta aberasteko kultur arloko estrategiak.
- Gasteizko eta Arabako euskarazko kultur adierazpideei **ikusgarritasuna eta erakusleihoak** eskaintzeko estrategiak.
- Euskal kultura sorkuntza ikertzea.
- Gasteiz eta Araba, beren berezitasunak kontuan hartuta, **Euskal Herriko lurralde zehatz gisa** aztertzea.
- Arabako eusalgintzako eta kulturgintzako eragileen arteko **elkarlana eta artikulazioa**.
- Etorkizunera begirako proposamen **berritzaile eta aplikagarriak**.

EPEA ETA AURKEZTEKO MODUA

2026ko azaroaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira izen-emateak, deialdiko [inprimakia](#) osatuz.

- Epez kanpo jasotako eskaerak aukeraketa-prozesutik kanpo geratuko dira.
- Eskaera **dokumentu bakarrean eta PDF formatuan** aurkeztuko da, gehienez **30 MB**-koa, deialdian ezarritako inprimakia erabiliz.

DOKUMENTAZIOA

Eskaeran honako informazioa jaso beharko da:

- Eskatzailearen datuak (izen-abizenak, jaioteguna, jaioterria, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa).
- **NAren fotokopia** edo, enpresen kasuan, IFK.
- **Euskarazko C1 mailaren egiaztagiria** edo baliokidea.
- Eskatzailearen curriculum; taldean aurkeztuz gero, kide guztiena.
- **Ikerketaren memoria**, gehienez 10 orrialdekoa: laburpena, ikergaia, helburuak, egokitasuna, metodologia, baliabide teknikoak, kronograma, ikerketaren osteko aplikagarritasuna eta ikertzailearen edo taldearen ibilbidea.

Ikerketaren emaitzak **jendaurrean aurkeztu beharko dira**, Izaskun Arrue Kulturgunean egingo den aurkezpen ireki baten bidez.

Ikertzaileak ikerketarekin lotutako **jarduera osagarriak** proposatu ahal izango ditu. Hitzaldiak, kontzertuak, ikastaroak, lantegiak, aurkezpenak, ikuskizunak edo proiektzioak izan daitezke, besteak beste. Kulturguneak espazioa eta beharrezko materiala eskaini ahal izango ditu; bestelako gastuak bekaren zenbatekoaren kontura izango dira.

2026 BAGARE

IK
Izaskun Arrue
Kulturguneko

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Jasotako proiektuak **Lazarraga Kultur Elkartek aukeratutako epaimahai profesional batek** baloratuko ditu. Izaskun Arrue Kulturguneko teknikari batek bitartekaritza-lanak egingo ditu, baina **ezingo du puntuazio-prozesuan parte hartu.**

Epaimahaikideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela aztertuko dute eta eskabideak hurrengo irizpide hauen arabera baloratuko dituzte:

1) IKERLANAREN ESPARRU TEORIKOA:

10 PUNTU

Ikerketaren oinarri teorikoak, aurrekariak eta erabilitako erreferentziak hartuko dira kontuan.

2) IKERLANAREN PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA:

30 PUNTU

Ikergaiaren definizioa, ikerketa-galderak, helburuak, metodologia eta ikerketaren fase bakoitzerako planteatutako metodoa baloratuko dira.

3) BIDERAGARRITASUNA ETA KRONOGRAMA.

10 PUNTU

Proiektuaren koherentzia, proposatutako lanaren bideragarritasuna eta sei hilabeteko epean garatzeko egokitasuna hartuko dira kontuan.

4) BERRIKUNTZA ETA GARAIKIDETASUNA:

20 PUNTU

Proiektuaren originaltasuna, bestelako ikerketa edo esperientziekiko lotura eta proposamena Arabako gaur egungo errealitatean txertatzeko gaitasuna baloratuko dira.

5) APLIKAGARRITASUNA:

20 PUNTU

Ikerketaren emaitzek euskararen normalizazioan eta biziberritzean eragina izango duten kultur estrategiak praktikan jartzeko duten aukera hartuko da kontuan.

6) IKERTZAILEAREN EDO IKERKETA-TALDEAREN IBILBIDEA:

10 PUNTU

Ikertzailearen edo taldearen prestakuntza, esperientzia eta aurretiko ibilbidea baloratuko dira, baita proposatutako ikerketa garatzeko duten gaitasuna ere.

GUZTIRA: 100 PUNTU

Epaimahaia **hautagaiei elkarrizketa egiteko aukera** izango du. Elkarrizketan, ikerketa-proiektuari eta deialdiaren helburuekin lotutako bestelako alderdiei buruzko galderak egin ahal izango dizkie.

Epaimahaiak **saria eman gabe uztea** erabaki ahal izango du, aurkeztutako proiektuek gutxieneko kalitate-maila betetzen ez dutela iritziz gero.

2026 BAGARE

IKERKETA
Izaskun Arrue
Kulturguneko

EBAZPENA

Ebazpena posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie parte hartu duten pertsona guztiei.

Beka esleitu zaion pertsonak edo taldeak hamar eguneko epean idatziz onartu beharko du.

BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA ORDAINKETA

- Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoak Izaskun Arrue Kulturgunearen 2026ko aurrekontuaren kontura izango dira, eta kopurua **4.000€-koa (*) izango da.**
 - Zenbatekoaren **%50 beka hasi aurretik** ordainduko da, esleipendunak hitzarmena sinatu eta 10 lanegunetara.
 - Gainontzeko **%50 lana amaitutakoan, aurkeztutakoan eta epaimahaiak ontzat emanetarakoan.**

(*) Bekadunak 4.000€-ko sari gordina jasoko du. Indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera, sariari PFEZ-ren %19ko atxikipena aplikatuko zaio.

IKERKETA BEKAREN ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- Beka hamar eguneko epean idatziz onartzea.
- Bekadunak eta Lazarraga Kultur Elkartek beka esleitu eta hamar egun igaro aurretik beka burutzeko hitzarmen bat sinatuko dute. Honetan, bi parteek adostutako konpromisoak beteko dituztela hitzartuko da.
- Ikerketaren garapenaren berri bi hilean behin ematea, azken emaitza aurkeztu aurretik.
- Amaierako ikerketa PDF formatuan bidali beharko du kultura@lazarraga.eus e-posta helbidera eta inprimatutako kopia bat aurkeztu beharko du aurrez Izaskun Arrue Kulturguneari, Errementari kalea 30 (Gasteiz - 01001) helbidean.
- Egindako lana argitaratuz gero, argitalpen guztietan, Izaskun Arrue Kulturgunearen eta bere babesleen laguntza jaso dela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen logoak txertatu beharko dira publizitate-euskarrian, Izaskun Arrue Kulturguneko Komunikazio sailetik ezarritako irizpideen arabera.
- Ikerketaren egileak, hau da, dirua jasotzen duenak, tokian tokiko ogasunak ezartzen dituen irizpide eta arauak bete beharko ditu.

2026 BAGARE

IK
Izaskun Arrue
Kulturaguneo

EZ BETETZEAK ETA ITZULTZEKO PROZEDURA

- Beka jaso duen banakakoak, edo taldeak, bekari uko egingo balio, edota beka osatzera helduko ez balitz, oinarrietan adierazitako eskubideak galdu eta dirulaguntza gisa jasotako diru guztia itzuli beharko du.
- Amaierako memoria ezarritako epean aurkezten ez bada, edo epaimahaiaren iritziz behar adinako kalitaterik ez badu, antolatzaileek jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango dute, justifikazio nahikorik ez badago.
- Bekadunak ikerketa amaitu aurretik, bere borondatez, beka itzultzen badu, ordura arte jasotako zenbateko osoa itzuli beharko du.
- Bekadunak lana entregatzeko azken epea amaitu ondoren beka itzultzen badu, ordura arte jasotako zenbateko osoa itzuli beharko du. Eta dagozkion berandutze-interesak aplikatu ahal izango zaizkio.

LEGE-OHARRAK

Deialdian parte hartzearekin batera, oinarriak onartzen direla, eta Lazarraga Kultur Elkartearen lege-oharrak onartzen direla adierazten da.

Pribatutasun-politika:

<https://lazarraga.eus/privatutasun-politika/>

HARREMANA ETA KONTAKTUA

Deialdi, garapen-fase, proiektu mota edo aurkezteko prozesuari buruzko kontsultak, helbide honetan jar daitezke interesatuak antolatzaileekin harremanetan:

kultura@lazarraga.eus